



Jo ala
Jo

taldekoak Sagardantza dantzatu zieten Nafarroako sagardogileei eta idazleari.

GIZARTEA

Dolores Redondo idazle ezagunak ireki du Nafarroako txotxeko sagardotegi denboraldia

Urtarrilaren 16an egin zen irekiera ekitaldia Lekarozko Larraldean

Baztan | 2015-01-19 | 08:05 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Aitor Arotzena

Lekarozko Larraldea sagardotegian ireki zen joan den ortziralean, urtarrilaren 16an, 2015eko txotxeko sagardotegi denboraldia eta Baztango bazterrak bere misteriozko trilogiaren bidez ezagutzera eman dituen Dolores Redondo idazlea izan zen sagardo berria dastatzen lehena. Lekarozko Larraldearekin batera, Lesakako Lindurrenborda, Berueteko Behetxonea, Aldazko Maritxonea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkarte eta aurten 200.000 bat litro sagardo kupeleratu dituzte. [Ikusi bideoa](#)

Dolores Redondoz gain, kultura, kirol eta politika munduko jende ezaguna bildu zen Larraldean. Errate baterako, kultur mundutik, Patxi Bisquert aktorea, Tasio edo La fuga de Segovia bezalako filmetan ezagun egin zena edo Manolo Arozena, Etxabe eta Juan Mari Lopez bertsolariak bertan ziren, azken hau sagardogilea ere bada. Kirol arlotik, Ibai Meoki Anaitasunako eskubaloi jokalaria doneztebarra, David Latasa txirrindulari ohia, Mikel Goñi edo Patxi Larretxea ere han ziren eta politika mundutik, Jose Javier Esparza kontseilaria eta UPNko burua. Gainera, Garbiñe Elizegi Baztango alkatea eta Mikel Ortega zinegotzia ere Lekarozera hurbildu ziren, azken hau Jo ala Jo taldeko txistularia ere baita.

Hain zuzen, Jo ala Jokoen adar eta kirrikoketa doinuekin hasi zen ospakizuna.

Gero, sagardantza eta aurrekua ere eskaini zieten sagardogileei eta Dolores Redondori eta idazleak, Jesus Angel Garcia Larraldeako nagusiak irekitako lehen kupeletik dastatu zuen Nafarroako sagardo berria. Gero, gonbidatu guztiek txotxetik edan zuten.

2011n ere Lekarozen ireki zuten Nafarroako sagardotegi denboraldia eta orduan Undiano Mallenco futboleko epaile ezaguna izan zen arduraduna. Iaz, berriz, Lesakako Lindurrenbordan ireki zuten denboraldia Patxi eta Donato Larretxea anaiek.

Geure buruaz | Pribatasun politika | Kontakua

TTIPI-TTAPA | Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)

Tel: 948 63 54 58 | Faxa: 948 63 54 57

Diseinua: Ttipi-Ttapa | Garapena: [iametza interaktiboa](#)



TTIPI-TTAPAKo edukiak kopia, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletzakoak direla aitortzen baldin baduzu eta baldintza berdinetan egiten baduzu.

Laguntzailea:

